

Baiona, 2025eko apirilaren 4a

Eusko Jaurlaritzak eta Euskararen Erakunde Publikoak Iparraldean euskara sustatzeko hitzarmena sinatu dute

- **Esparru-hitzarmenak elkarlanerako bost arlo zehazten ditu:** (1) euskararen transmisioa, (2) hizkuntzaren presentzia eta erabilera; (3) hizkuntzaren kalitatea, (4) hizkuntzaren aldeko motibazioa eta azkenik, (5) euskararen eragileen arteko zubiak eraikitzea.
- **Azken 4 urteetako elkarlanari esker 153 proiektu martxan jarri dira**
- **Bengoetxea lehendakariordea:** "Jauzi kualitatiboa eman nahi dugu euskararen erabileran eta helburu horretan ezinbestekoa da zubiak eraikitzea eta lurraldeen arteko harremana sendotzea."
- **Maïder Behoteguy-k** "Lankidetzak hau konfiantzan, jarraikitasunean eta euskararen alde konkretuki lan egiteko borondate partekatuan oinarritzen da."

Ibone Bengoetxea, Eusko Jaurlaritzako lehen lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak eta Maïder Behoteguy, Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoko (EEP) lehendakariak euskara elkarlanean sustatzeko erakunde bien engaiamendua berretsi dute gaur, Baionan egindako ekitaldi batean.

2025-2029 epealdirako esparru-hitzarmenaren barruan, gaurko ekitaldian 2025erako lankidetzaren lan-ildoak ezagutzera eman dituzte eta, horrekin batera, erakunde bien diru-ekarpena zehaztu dute. Batetik, lankidetzarako bost arlo zehaztu dituzte; bestetik, erabaki dute 1.930.000 euro bideratzea Ipar Euskal Herriko euskalgintzako eragile pribatuen lana diruz laguntzera (iazko kopuru bera). Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak 400.000 euro jarriko ditu xede horretarako.

Euskararen Erakunde Publikoaren egoitzan egindako aurkezpen honetan **Ibone Bengoetxea** lehendakariordeak adierazi duenez, "Jauzi kualitatiboa eman nahi dugu euskararen erabileran eta helburu horretan ezinbestekoa da zubiak eraikitzea eta lurraldeen arteko harremana sendotzea. Harremanak estutuz, informazioa eta jakintza trukatzuz, baliabideak bateratuz, proiektuak partekatuz... eraginkorragoak izango gara euskararen sustapenean" Horrez gain, hitzarmen honek "komunitate sentipena sorraraztea" ere helburu duela adierazi du lehendakariordeak.

Bestalde, **Maïder Behoteguy**, EEPko Lehendakariak azpimarratu du lankidetzak honen garrantzia: "Eneko, lankidetzak hau konfiantzan, jarraikortasunean eta euskararen alde konkretuki lan egiteko borondate partekatuan oinarritua da. Hemen eraikitzen ari gara lanerako esparru sendo eta bateratua da, bakoitza bere errealitatearekin, baina denok norabide berean aitzina eginez, euskararen alde. Itxaropenak handiak eta erronkak ugariak diren testuinguru honetan, Eusko Jaurlaritza bezalako bazkide engaiatu baten sostengua izatea abantaila handia da Iparraldearentzat"

Esparru-hitzarmena

2007an hizkuntza politika gaietan bi erakundeen arteko lankidetzak jarraitua abian jarri zenetik bostgarren akordioa da gaur Baionan sinatu dena. Lankidetzak-esparru horren arabera, Eusko Jaurlaritzak eta Ipar Euskal Herriko Euskararen Erakunde Publikoak euskararen gaineko hizkuntza politikako gaietan mugaz gaindiko lankidetzak garatzearen aldeko borondatea berretsi dute.

Esparru-hitzarmenak elkarlanerako bost alor zehazten ditu: (1) euskararen transmisioa, (2) hizkuntzaren presentzia eta erabilera; (3) hizkuntzaren kalitatea, (4) hizkuntzaren aldeko motibazioa eta azkenik, (5) euskararen eragileen arteko zubiak eraikitzea.

Esparru-hitzarmen honek lankidetzarako testuingurua definitzen du eta urtero ekintza-programa bat adosten da.

Ekintza programa

Ekintza-programa horrek lau lan-ildo nagusi zehaztu ditu:

- 1. Helduen euskalduntze-alfabetatzea:** Ildo honetan hizkuntza-gaitasunaren mugaz bi aldeetako egiaztagirien baliokidetzaren jarraipena egingo da. Honez gain, helduen euskalduntzea garatzeko dauden laguntzei buruzko diagnosia egingo da eta Ingura euskara online ikasteko plataforma osatzen jarraituko da euskara ikasteko ate gehiago irekitzeko.
- 2. Euskararen Adierazle Sistema eraikitzeke elkarlana:** Eusko Jaurlaritzak eta EEPk adostu dute elkarrekin sortutako adierazle sistemaren garapena elkarrekin jarraitzea, eta proiektuaren garapenarekin sistemaren eta adierazle egokitzapen lanetan aritzea, lurralde bakoitzaren errealitateak hobeki kontuan hartuz. Bestalde, EAS webgunea elikatzeke lanek ere jarraituko dute.
- 3. Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako sailburuordetzaren eta EEPren zerbitzuen arteko partaidetza teknikoak,** gai batzuen inguruan:
 - Itzultzaile neuronalak: ideia da euskara-frantsesa itzultzaile neuronalak elkarrekin garatzen segitzea.
 - Nolaerran.org hiztegia Itzuli Desktop tresnan txertatuko da.
 - HABE Liburutegiari dagokionez, ideia da zerbitzu hauek EEPren zerbitzura jartzea.
- 4. VIII. inkesta soziolinguistikoa**ri dagokionez, 2025erako partaideek adostu dute, 2026an burutuko den VIII. inkesta soziolinguistikoaaren prestaketa-lanak abiatzea,

Diru ekarpena

Bestetik, eranskinean Ipar Euskal Herriko euskalgintzari loturiko **eragile pribatuen lana diruz laguntzeke diru-ekarpena zehaztu da**. Iaz bezala, 1.930.000 euro izanen dira horretarako; Euskararen Erakunde Publikoak 1.530.000 euro jarriko ditu, eta Eusko Jaurlaritzak 400.000 euro. Lankidetzarako aurrekontu hori bi multzotan banatuko da:

- 1.793.500 € ezarriko dira Iparraldeko eragile jakin batzuk diruz laguntzeke, hitzarmen bidez,
- 136.500 € ezarriko dira beste edozein eragile pribatuk aurkeztutako proiektuak diruz laguntzeke, Hizkuntza Jarduera Proiektu Deialdiaren bidez.

2025eko Hizkuntza jarduera proiektu-deialdia

Hizkuntza-ekintzen proiektu-deialdia Ipar Euskal Herriko eragile pribatu guztiei zuzendua zaie, euskararen transmisioaren eta erabileraren arloan lanean ari direnak.

Deialdiaren araudia eta dirulaguntza eskaera egiteko informazio guziak **www.mintzaira.fr** webgunean aurkituko dituzue.

- **Eskaerak aurkezteko azken epea:** 2025eko maiatzaren 2a
- **Eskaeren azterketa teknikoa:** 2025eko maiatza/ekaina
- **Erabakien ebazpena:** 2025eko ekainaren bukaeran

Aitzineko urteetan

Eusko Jaurlaritzaren eta Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoaren arteko euskara sustatzeko lehen esparru-hitzarmena 2007an sinatu zen. Azken esparru hitzarmenaren bidez, azken 4 urteetan, hitzarmenez lotu 14 eragile nagusietaz gain, beste 153 proiektu lagundu dira hizkuntza jarduera proiektu deialdiaren bidez batez ere lau eremutan: euskarazko irakaskuntza, helduen euskalduntzea, hedabideak eta aisialdia.

Dirulaguntzez gain, elkarrekin euskaraz partekatzeko uneak ere sustatu nahi izan dira eta adibidez, orotara, Iparraldeko eta Hegoaldeko 190 gaztek udalekuetan parte hartu ahal izan dute 2022an eta 2024an antolatutako udalekuetan.